

LARRIALDI-EGOERAREN NEURRI BERRIAK EUSKADIN

NEURRI ETA BETEBEHAR OROKORREN LABURPENA:

Herritar guztiek behar diren neurriak hartu behar dituzte COVID-19 gaixotasuna ez zabaltzeko eta arrisku horien eraginpean ez egoteko. Zuhurtasun- eta babes-betebehar hori edozein jardueraren titularrei ere eska dakieke.

- Herritarrei gomendatzen zaie bizikidetza-talde egonkorretik kanpoko gizarte-topaketak mugatzea, bai eta gizarte-topaketak gehienez 10 pertsonatara mugatzea ere.
- Maskara erabiltzea eta behar bezala erabiltzea derrigorrezkoa dela errepikatzen da. Sudur-trenkadatik kokotseraino estali beharko du.

Pertsonak bildu eta elkartzea kultu-aretoetan

Pertsonen arteko topaketak mugatuta daude eta murriztu egin beharko dira. Beilatoki eta hiletetan **30 pertsonako muga ezarri da** espazio ireki nahiz itxietan, baita lur-erate ekitaldietan ere.

Zentro sozio-sanitarioak. Adinekoak eta desgaitasuna duten pertsonak

Murrizketak eguneko zentro eta egoitzetan, Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren artean adostuak. Gutxiengoak honakoak dira:

1. **PCR proba derrigorrezkoa da egoiliar berri guztientzat eta zentro sozio-sanitarioetara bueltatzen diren langile guztientzat**, eta gutxienez sartu baino **72 ordu lehenago** egin beharko dira.
2. **Egoitzetara bisitak pertsona bakar batera mugatuko dira, eta gehienez ere egunean ordubetez egon ahalko dira bertan**, bizitzaren amaierako prozesuan izan ezik.
3. Egoiliarren irteerak mugatuta daude.

Ostalaritza

Tabernak, jatetxeak eta txokoak:

1. **Barruko nahiz kanpoko kontsumoa:** gehienez ere **10 pertsona** mahai edo mahai-multzo bakoitzeko, **beti eserita, euren artean 1,5 metroko distantzia** mantenduz mahai bateko bezeroen eta ondoko mahaikoen artean.
2. **Barrako zerbitzua:** baimenduta dago bertan egotea eta kontsumitzea, betiere **bezeroak eserita badaude eta pertsonen arteko gutxienezko segurtasun-distantzia mantenduz**.
3. **Itxiera ordua goizaldeko 01:00 izango da, eta ezin izango da bezerorik onartu edo kontsumiziorik eskaini 00:00etatik aurrera.**

Gune komunak hoteletan eta turismo-ostatuetan

1. **Edukiera %60koa** izango da.
2. Buffetak eta cocktailak **10 pertsonako taldeetan, guztiak eserita**.
3. Animazio, kirol eta taldeko ekintzak, gehienez ere **10 pertsonako taldeetan**.

Gaueko aisialdia

Diskotekak, dantza-aretoak, pubak eta III. eta IV. taldeetan sailkatutako establezimendu guztiak **erabat ixtea**, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren arabera.

Garraio publikoa

Garraio publikoa taberna, jatetxe, txoko eta joko-lokaletako jardueraren ordu berean amaituko da, hau da, goizaldeko ordu **1:00etan**.

Gazteen lonjak eta lokalak

Debekatuta dago jarduera oro gazte-lokaletan eta antzeko ezaugarriak dituzten lokaletan.

Kanpoko jarduera

Federatu gabeko jarduera fisikoa eta kirol-jarduera, aire zabalean, bakarka edo taldeka egin ahal izango da, **kontaktu fisikorik gabe eta gehienez 10 pertsonako taldeetan**.

Turismo aktiboko eta naturako jarduerak **gehienez 10 pertsonako taldeetan** egin ahal izango dira.

Aisialdi-zentroetara eta akuarioetara taldeko bisitak gehienez ere **10 lagunekoak** izango dira.

Berariaz debekatuta dago kalean edatea eta botiloia egitea.

Igerileku publiko edo pribatuetako edukiera %60ra murrizten da, eta gehieneko egonaldia 3 ordukoa izango da.

Tabakoaren eta antzekoen kontsumoa

Debekatuta dago eremu publikoetan erretzea, erretzaileak ezin badu bermatu pertsonen arteko gutxieneko distantzia 2 metrokoa izango dela. Maskara kea arnastu eta botatzeko bakarrik kenduko da.

Kultura-, kirol- eta aisialdi-jarduerak

Aire zabaleko kultura-, kirol- eta aisia-jardueretan edukiera %60ra eta gehienez 1.000 pertsonara murriztu da. Estalpean egiten badira, edukiera berbera izango da, baina gehieneko kopurua 600 pertsonakoa izango da.

Edukiera murriztua zezen plazetan

Zezenketak ere murrizketa berrien eraginpean daude. %60ko gehieneko edukiera eta 1.000 pertsonatik beherakoa harmailetan.

Zinema, antzoki, museo eta liburutegiak

Gainerako ekitaldi eta jarduera kulturek bezala, zinemek eta antzokiek ezin izango dute %60ko edukiera gainditu. Aretu bakoitzean 600 pertsona egongo dira gehienez ere.

Ez dago baimenduta erromeriak, musika- edo dantza-erakustaldiak espazio irekietan eta beste herri-ekitaldi batzuetan egitea, hala nola ikuskizun ibiltarietan, desfileetan edo kalejiretan.

Haur-parkeak

Haur-parkeak, kirol-eremuak, patinaje-pistak (skating) edo aire zabaleko erabilera publikoko antzeko espazioak irekita egon ahal izango dira, baldin eta 4 metro koadroko azalerako pertsona bateko gehieneko edukiera errespetatzen bada.